



**C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.**

**KUDEAKETARAKO ARAUAK- ERASKINA 1  
IKASTETXEA KUDEATZEKO POLITIKA**

## **BERDINTASUN-POLITIKA**

Baterako hezkuntza eredura bidean FADURA LHII ikastetxean aurrerapausoak emango ditu ikasle eta langileen artean eduki, balore eta jarrera parekideen bitartez eta praktika hezitzaile zein zentroaren kudeaketaren bitartez.

Horretarako ondoko ildo hauetan dugu konpromisoa

- Genero perspektiba ziklo guztietako kurrikulumetan txertatzea.
- Ziklo guztietan gizon eta emakumeen artean berdintasunezko sarbidea eta parte hartzea sustatzea ikasleen sexuaren bereizketarekin hausteko.
- Zentroan berdintasunari buruzko formakuntza koherente eta egonkorra ezartzea.
- Berdintasunaren alde hezigunean sentsibilizazio eta komunikazio ekintza jarraituak garatzea.
- Politika globaletan berdintasunaren aldeko apustua txertatzea, baita zentroan bertan modu zehatz batean ere.
- Emakume eta gizonezkoen artean berdintasunezko parte hartzea sustatzea heziguneko ordezkari eta erabakigune espazioetan.
- Berdintasuna sustatzeko ikastetxeak sortutako egitura zehatzak sendotzea